



2013KO ABENDUAREN 23KO ZIRKULARRA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, FONDO EKONOMIKOA 2013KO EKITALDIKO BESTE ATENTZIO SOZIAL BATZUETARAKO BANATZEARI BURUZKOA.

Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen indarreko Akordioaren 25. artikuluan arautzen denez, 69.116,39 euroko fondo ekonomiko bat ezarrita dago "Beste Atentzio Sozial batzuetarako".

Akordio horretan ezarritako baldintzak indarrean daudela, zirkular honen bidez 2013ari dagokion fondo ekonomikoa banatzeko deialdia egiten da. Zirkular honetan ezartzen dira eskaerak aurkezteko deialdiko oinarriak Beste Atentzio Sozial batzuetarako fondo ekonomikoaren kargura aurreikusita dauden laguntzak jaso ahal izateko.

I. KAPITULUA OINARRI OROKORRAK

1. artikulua. Laguntzen helburua eta edukia

Zirkular honen helburua da edukiaren erregulazioa, kudeaketa-prozedura, Fondo Sozialeko laguntzak kudeatu eta ordaintzea, laguntza horiek jasotzeko eskubidea duen pertsonalarentzat, ondoren adierazten diren modalitateetan:

- a) Protesi- eta odontologia-laguntza.
- b) Minusbaliatuak atenditzeko laguntza.
- c) Osasun-sistema publikotik kanpo dauden tratamendu eta interbentzio medikoetarako laguntza.
- d) Nazioarteko adopzioetarako laguntza.
- e) Ezohizko laguntzak.

Modalitate desberdinak metatu ahalko dira.

2. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

1. Likidatzen den ekitaldirako dagoen zenbatekoa 69.116,39 eurokoa izango da.

Laguntzak kalkulatzeko, behar bezala justifikatutako gastuek eskatzaileari eragindako kalte ekonomiko pertsonala hartuko da kontuan. Ondorio horietarako, zirkular honen 13. artikuluko kasuan ezarritako zenbatekoa gastu justifikatutzat hartuko da.

2. Kalte ekonomikoaren zenbatekoa kontuan hartzerakoan, atalase bat jartzen da eskabide desberdinak kontuan hartzeko, likidatzen den ekitaldiko onuradunaren urteko ordainketa gordinen %7ko portzentajea, hain zuzen. Soldataren %7a baino gehiagoko gastuak hartuko dira oinarritzat.
3. Azken finean, behar bezala justifikatutako gastuen edo esleitutako zenbatekoaren eta kalte ekonomikoaren arteko diferentziagatik emango dira laguntzak, dagokion portzentajearekin behin zenbateko erabilgarriira egokitu ondoren.



4. Eman beharreko gutxieneko zenbatekoa 50 eurokoa izango da, betiere Fondoan dagoen zenbatekoa agortzen ez den bitartean. Agortuz gero, proportzionaltasun-irizpidearen arabera esleitu da zenbatekoa.

3. artikulua. Hartzen dituen langileak

1. Zirkularreko 1. artikuluan aipatutako laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute:
 - a) Pertsonal estatutario finkoak.
 - b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzen Akordioa aplikatzen diren zerbitzu-erakundeetako karrerako funtzionarioek.
 - c) Osakidetzako lan-baldintzak arautzen dituen Akordiora –langileen ordezkariak sinatutako Atxikimendu Akta bidez nahiz norbere atxikimendu bidez- atxiki diren Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako langile lan-kontratudun finkoak.
 - d) Egiturako plantillaren mugen barruan baimenduta, beharrianak betetzeko bitarteko lanpostua duten langile estatutarioek edo funtzionarioek, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeak ezartzen dituen sarbide-mekanismoen arabera ohiko jardunbideaz betetzen ez diren bitartean.
 - e) a), b), c) eta d) ataleko langileen ordezkariak betetzeko pertsonalak, izendapenaren egoerak irauten duen gehieneko denboraz, dagozkion atalean ezarritako arauen arabera. Ondorio horietarako, pertsonal horrek sei hilabete baino gehiagoko zerbitzuak izan behar ditu eskaera hori sorrarazi eta betetzen duen lanpostuan.
2. 2013 osoan lan egin ez duten pertsonalaren eskabideak Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan lan egindako denboraren proportzioaren arabera hartuko dira kontuan.
3. Edonola ere, laguntzak eragiten dituen gertaera eragilea, eskatzailea aipatutako aplikazio-eremuetakoren batean zerbitzu aktiboan dagoela gertatu beharko da.
4. Langileari, ezkontideari eta seme-alabei dagozkien egoeretatik datozen eskabideak hartuko dira kontuan, salbuespen hauekin seme-alabei dagokienez:
 - a. Laguntza eragin duen gertaera eragilea gertatu den unean 25 urte beteak dituztenean.
 - b. Beste familia-unitate batekoak direnean.
 - c. Bere urteko lan-errentak- norbere konturakoak nahiz besteren konturakoak- lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak direnean likidatzen den ekitaldian.

Kasu horietan, familia-liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da eskaerarekin.

4. artikulua. Eskabidea eta dokumentazioa

1. Interesatuek eredu ofizialaren arabera aurkeztu behar dute eskabidea, behar bezala beteta.
2. Laguntza hauen aplikazio-eremuan, bi subjektuk onuradun berberak dituztenean, bietako batek bakarrik izango du horietaz baliatzeko eskubidea.
3. Eskabidearekin batera laguntza-modalitate bakoitzean berariaz eskatutako dokumentazio originala aurkeztuko da, eta zirriborro edo zuzenketak dituzten dokumentuek ez dute balioko. Salbuespen moduan, fotokopia konpultsatuak onartuko dira dokumentu originalak aurkeztea ezinezkoa dela justifikatzen denean.
4. Espedienteak erabakitzeke oinarri diren datuak egiaztatu eta argitze aldera, Administrazioak datu horiei edo eskatzaileen administrazio-egoerari edo lan-egoerari buruzko argibide-dokumentazioa eska dezake.

5. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak zirkular hau ematen denetik aurrera egingo dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako Pertsonaleko Zuzendaritzetan aurkeztuko. Eskabideak aurkezteko azken eguna: 2014ko urtarrilaren 31.

6. artikulua. Kudeaketa-prozedura

1. Zirkular hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko intraneten argitaratuko da, eta zerbitzu-erakundeetako iragarki-oholetan jarriko.
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Pertsonaleko Zuzendaritzek Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara bidaliko dituzte eskabideak 10 eguneko epean, alfabetikoki ordenatuta.
3. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren Ebazpen bidez, onartutako eta baztertutakoen zerrenda argitaratuko da. Horren aurka dagozkion erreklamazioak aurkeztu ahalko dira 20 egun naturaleko epean. Ebazpen hori lehen azaldutako prozeduraren arabera zabalduko da.
4. Eskabideak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren Jarraipen Batzorde Paritarioak adostuta erabakiko dira, Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren onarpen-ebazpen edo ukapen-ebazpen banaren bidez. Interesatuei berariaz emango zaie erabaki horien berri.
5. Nominan ordainduko da. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta lau hilabeteko epean ordaintzea aurreikusita dago, faktore zehazgaitzik ez badago.
6. Fondoa lehen fasean agortuko da, baldin eta demanda zenbateko erabilgarriaren adinakoa edo handiagoa bada. Erreklamazio-fasean eskatzailearen alde erabakitako eskabideak hurrengo urteko Fondo Sozialaren kargura ordainduko dira.

7. artikulua. Bateragarritasunak

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina-aurreratzeekin, itzultzeko aurrerakinekin edo nominan hileko erretentzioa eskatzen duen Administrazio Publikoak emandako beste edozein prestaziorekin.

8. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Zirkular honetako laguntza-motak bateraezinak dira gertaera eragile bererako edozein organismo edo erakunde publikok emandako antzeko laguntzekin, salbu eta laguntza horiek zenbateko txikiagokoak ez badira. Horrelakoetan, diferentzia eska daiteke, dokumentuekin laguntza horiek nolakoak eta zenbatekoak diren egiaztatzen bada.
2. Halaber, bateraezinak dira beste laguntza hauekin ere: familia-unitateko kideren bat beste Akordio edo Hitzarmen Kolektibo batzuei atxikita egon, kasu berberetarako akordio edo hitzarmen horietan laguntzak aurreikusi eta laguntza hauen onuradun izanez gero, salbu eta, aurreko atalean bezala, zenbatekoa txikiagoa bada. Kasu horretan, diferentzia eska daiteke.

9. artikulua. Faltsukeria eskabideetan

Datuak ezkutatzuz gero, aurkeztutako dokumentazioan gezurrak adieraziz gero edo eskatutako datuak aipatzen ez badira, eskatutako laguntza ukatuko da edo emandakoa galduko, eta azken kasu horretan, behar ez den eran jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, Kode Penalaren 390. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako erantzukizun penalak eta izan daitezkeen erantzukizun zibil eta administratiboak aparte utzita.

II. KAPITULUA. OINARRI ESPEZIFIKOAK

10. artikulua. Protesi- eta odontologia-laguntza

1. Modalitate hau ondorengo protesiak jartzeko egindako gastuak ordaintzeko prestazio ekonomikoa da.
 1. Hortz-protesiak:
 - Hortz-hagin guztiak
 - Goiko edo beheko hortzak
 - Pieza solteak edo endodontzia
 - Buxadurak edo enpasteak
 - Implante osteointegratuak
 - Ortodontzia
 2. Begi-protesiak:
 - Ikusmena zuzentzeko betaurrekoak, modalitate guztietan.
 - Kristal berriak
 - Lentillak (mantentze-likidoak ez)
 3. Entzumen- eta fonazio-protesiak:

- Audiofonoak
- Fonazio-aparatuak

4. Bestelako protesi ez-kirurgikoak, aparatu bereziak eta baliaezinen ibilgailuak:

Bakarrik izango dute laguntza osasun-sistema publikoko edo mutualitate-sistema publikoko prestazio-zerrendan ageri ez diren protesi ez-kirurgikoek edo aparatu bereziek, edo berariaz ukatuak izan direnek.

2. Dokumentazioa.

- a) Protesi-beharra justifikatzea.
- b) Faktura originalak legez adostuak. Faktura horiek establezimendu espezializatuak emandakoak izango dira. Fakturan datu hauek ageriko dira: IFK/IFZ, "jaso izana", data eta sinadura, eta erositako ondasunaren xehetasunak eta eroslearen izen-abizenak eta helbidea.

11. artikulua. Minusbaliatuak artatzeko laguntza

1. Laguntza-mota hau urritasun fisiko, psikiko edo sentsorialen tratamendua, errehabilitazioa edo atentzio espezialaren ordainketa dela-eta izandako gastuak finantzatzeko da.

Halaber, horren barruan sartzen dira ibilgailu motorduna eta etxebizitza minusbaliatuaren beharretara egokitzeko gastuak, gehienez 2.500 eta 5.000 eurotaraino hurrenez hurren.

2. Pazienteak pentsio ofizialen bat badu edo bere gurasoek, ezkontideak edo tutoreak minusbaliotasunagatik prestazioren bat jasotzen badute, %75 laguntza-gastuetatik kenduko da, erresidentzietan edo etxean emandako etengabeko asistentzia gastuak direnean.

3. Dokumentazioa:

- a) Urritasuna egiaztatzen duen ziurtagiria, minusbaliotasunaren arabera eskumena duen organoak emana.
- b) GSIN-en ziurtagiria, pentsioaren edo, hala badagokio, esleiturik duen familia-prestazioaren zenbatekoa jasotzen duena; edo ziurtagiri negatiboa.
- c) Bizi den Lurraldeko erakunde eskudunaren ziurtagiria, pazientearen atentzioa dela eta ekitaldian zehar jasotako laguntzen gainean, edo hala badagokio, ziurtagiri negatiboa.
- d) Errehabilitazioko zentro edo erakundeetako profesional espezializatuak minusbaliotasun edo urritasunen tratamendu, errehabilitazioa eta errehabilitazioan emandako atentzioaren ondorioz eragindako gastuen fakturak eta, hala badagokio, desplazamendu-gastu justifikatuen fakturak. Fakturak Zirkular honen 10.2.b) artikuluan adierazten diren ezaugarriak izan behar dituzte.

12. artikulua. Tratamendu eta interbentzio medikoengatiko laguntza

1. Laguntza hori tratamendu medikoek eta interbentzio kirurgikoek eragindako gastuak finantzatzeko da, betiere osasun-sistema publikoak edo mutualitate-sistema publikoak emandako asistentzia mediko-farmazeutikotik kanpo badaude, eta helburu bakarra estetikoa ez baldin bada.
2. Dokumentazioa:
 - a) Organo eskudunak (Osakidetza, GSIN, Mutuak) emandako ziurtagiria. Bertan, adieraziko da izandako tratamendua edo interbentzio kirurgikoa prestaziotik kanpo gelditzen dela.
 - b) Gaixotasunaren edo lesioaren diagnostikoaren eta jasotako tratamenduaren gaineko txosten medikoak.
 - c) Tratamendua egin dion zentro espezializatuak emandako fakturak.

13. artikulua. Nazioarteko adopzioak

1. Prestazio hau laguntza ekonomiko bat da, oroharreko prezioan, behingoan ordaintzekoa, adingabeak atzerrian adoptatzeko gastuak finantzatzeko. Gastu horren zenbatekoa Akordioaren Jarraipen Batzorde Paritarioak erabakiko du, laguntza-mota hori aukeratu duten eskaera guztien kopuruaren arabera.
2. Jaso beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, zirkular honen 2.4) artikuluan azaldutako prozedurari jarraituko zaio, behin kopurua esleitutakoa.
3. Dokumentazioa:
 - a) Adopzioa ematen dion jatorrizko Lurraldeko ebazpen judizialaren fotokopia konpultsatua.
 - b) Familia-liburuaren fotokopia konpultsatua, bertan adoptatuaren inskripzioa azalduko delarik.

14. artikulua. Ohiz kanpoko laguntza

1. Bere urgentzia eta larritasun berezia dela eta, norberaren edo familiaren egoera ekonomikorako karga berezia izan daitezkeen antzeko beste kasu batzuk ere kontuan har daitezke. Dena den, horrelako kasuetan, Akordioaren Jarraipen Batzorde Paritarioari dagokio horren gainean erabakitzea, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta.
2. Dokumentazioa. Eskaera-arrazoiarengatik dagokiona eta interesatuak kausa hobeto ezagutzeko egokitzen jotzen duena.

15. artikulua. Zerga-tratamendua

Eusko Jaurlaritzak fondo sozialen laguntza ekonomikoei buruz egindako kontsulta zela-eta, Euskadiko Zerga-Kideketarako Sailak bere egunean lotura-izaeraz emandako erantzunarekin bat, laguntza-mota horien tratamendua PFEZn honako hau izango da:

- 1.- Tratamendu eta interbentzio medikoengatiko, eta ondorengo errehabilitazioarengatiko eta oftalmologia, odontologia eta ortopedia, barne-zola eta audiofonoengatiko langileen eta bere senideen gastuak, ez dira zergapekoak (ez dira PFEZn aitortu behar), gaixotasun-gastuak direlako, betiere osasun-zerbitzu publikoak edo dagokion mutualitateak estaltzen ez dituenean.
- 2.- Langile nahiz bere senide minusbaliatuen atentziorako laguntzak ez dira zergapekoak (ez dira PFEZn aitortzen), urritasun fisiko, psikiko edo sentsorialen tratamendurako, errehabilitaziorako edo atentzio berezirako direnean, ezta ibilgailu motordunak eta etxebizitzak egokitzeagatiko laguntzak ere.
- 3.- Adopzio-laguntzak, seme-alaben haurtzaindegi gastuak, ikasketa-gastuak eta prestakuntza-gastuak zergapekoak dira (PFEZn aitortu behar dira).
- 4.- Ezohiko laguntzak ez dira zergapekoak izango (ez dira PFEZn aitortu behar), tratamendurako edo osasuna errekuiperatzeko diren heinean, betiere osasun-zerbitzu publikoak edo dagokion mutualitateak estaltzen ez baditu.


16. artikulua. Datuak babestea

1. Fondo Sozialaren kargura aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko, ezinbestekoa da eskatzaileei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta Osakidetza eta erakunde eskudunei lagatzea. (Horregatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eskatzaileen datu pertsonalak jasoko ditu). Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen kudeaketa arau hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, bai eta datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudia ere (ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa).
2. Deialdi honetan parte hartzen duten langileek onartu egiten dute zirkular honen helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.
3. Eskatzaileei buruzko informazioa Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erregistratuta dagoen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren «Registro del personal de Osakidetza» deritzan erregistroan egongo da. Eskatzaileek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea, 45; 01006, Vitoria-Gasteiz.

Xedapen gehigarria

Salbuespenez, paziente eta laguntzaileen desplazamendu-gastuetarako laguntzak ere izan daitezke, betiere ezinbestekoak badira. Horrelakoetan, Akordioaren Jarraipen Batzorde Paritarioak aztertuko du kasu bakoitza dagokion erabakia hartzeko, desplazamenduen distantzia eta maiztasunaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 23an.



Sin.: José María Armentia Macazaga
Giza Baliabideetako zuzendaria

Giza Baliabideetako zuzendaria

2013 URTEKO GIZARTE-FONDOAREN BANAKETA/DISTRIBUCIÓN DEL FONDO SOCIAL AÑO 2013

Eskatzailearen datuak / Datos del/la solicitante

1. **Abizena** / Apellido 1º:
 2. **Abizena** / Apellido 2º:
/zena / Nombre:
Zerbitzu-Erakundea / Organización de Servicios:
Osasun-laguntza (1) / Asistencia sanitaria:
N.A.N. / D. N. I.:
Lantokiko tf.-zb. / Teléfono del trabajo:

Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak, 2013 urteko gizarte-fondoa banatzeko 2013ko abenduaren 23an eman duen zirkularra aintzat hartuz, aipaturiko fondoaren konturako laguntza eskatzen dut eta horretarako hurrengo frogagiri hauek aurkezten ditut:

De conformidad con la Circular de la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud de fecha 23 de diciembre de 2013 sobre distribución del Fondo Social correspondiente al ejercicio 2013, solicito acogerme a la distribución de dicho fondo, para lo cual presento los siguientes justificantes:

DATA / FECHA	KONTZEPTUA / CONCEPTO	ZENBATEKOA / IMPORTE
Guztira / Total:		

Aditzera ematen dut deialdiaren oinarriak ezagutzen ditudala eta zinpean/promesapean esaten dut jakin badakidala, aitorten honetan egia ez esatea dokumentu ofizial baten aurkako gezurra esatea dela eta, ondorioz, Kode Penaleko 390. artikuluan eta hurrengoetan ezarritik dauden erantzukizun penaletan jausi naitekeela eta baita aplika daitezkeen gainontzeko erantzukizun zibil eta administratiboetan ere.

Manifiesto conocer las bases de la convocatoria y declaro bajo juramento/promesa que la documentación aportada es auténtica y ciertos los datos reseñados, sabiendo que faltar a la verdad en la presente declaración constituye falsedad en documento oficial, derivándose de ello las responsabilidades penales previstas en el artículo 390 y siguientes del Código Penal, así como las responsabilidades civiles y administrativas a que pudiera haber lugar.

.....20 ko..... ren
 En..... : .., a ... dede 20

Iz. Fdo.:

(1) PUBLIKOA, MUFACE... / PÚBLICA, MUFACE, etc.